

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jiménez presidenteordeak hiritarren segurtasunari buruzko nazioarteko konferentzia irekiko du Madrilen ostiral honetan

Ekitaldia Madrilgo IE Unibertsitateak antolatu duen biltzar baten barruan egingo da

Jueves, 20 de octubre de 2011

Roberto Jiménez lehen presidenteorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak [hiritarren segurtasunari buruzko nazioarteko konferentzia](#) irekitzeko hitzaldia emango du ostiral honetan Madrilen. Konferentzia hori Madrilgo IE Business School eskolak antolatu duen nazioarteko biltzarraren barruan egingo da.



Roberto Jiménez presidenteordea

Hitzaldiaren izenburua, euskarara itzulita "Herritarren segurtasunerako politikak globalizazioaren erronken aurrean" ("Las políticas de seguridad ciudadana ante el desafío de la globalización") izango da. Presidenteordeak, hasteko, herritarren segurtasuna modu partehartzailean landu behar dela azalduko du, izan ere, herritarren segurtasuna gizarteko bazterkeria eta herritarren eskubideak urratzen diren egoerak saihesteko erreferentzia da.

Segovian eta Madrilen urriaren 19tik 22ra egingo den nazioarteko biltzarrean herrialde eta diziplina ugaritako ehun espezialista baino gehiago elkartuko dira, herritarren segurtasunaren etorkizuna askotariko lanbideek landu beharrekoa dela eztabaidatzeko.

Topaketak beste herrialde batzuk hiritarren segurtasunerako burutzen dituzten jardun berritzaileak aurkezteko balio du, eta alor horretan etorkizuneko erronkak eta funtsezko gaiak aztertzeke aukera ematen du. Horien bidez, herritarren segurtasunerako nazioarteko ildo batzuk landuko dira tokiko instituzioek, estatukoek eta nazioartekoek aplika ditzaten ikuspegi orokorretik, geroz eta irekiagoa den eta elkarri lotuago dagoen munduaren errealitatea islatzeko.

Jiménez presidenteordeak bihar irekiko duen nazioarteko konferentzian askotariko gizarteko herritarren segurtasunerako

printzipioak eta ildoak laburtuko ditu. Topaketa horrekin batera hainbat herrialdetan egin diren topaketen nazioarteko prozesua amaituko da.